

Tolosatzen partaidetza proiektua abian jarri zuen Tolosako Udalak 2016ko apirilean, eta aurtengo aurrekontuetan isla dute, bigarrenenez, prozesuan parte hartu duten herritarren ekarpenek: Tolosatzeneko kideek plazaratutako ideia, kezka, behar edota proposamen ugariak isla dute 2018ko aurrekontuan txertatu diren 51 proiektutan eta 548.800 euroko kopurua bereganatuko dute.

Tolosatzenek bilatu nahi du herritarren partehartzea sistematizatzea udalgintzan eta norantza baten baitan, 'Tolosako Plangintza Partekatua 2017-2027'-an ezarria, urtez urteko jardunak planteatzea. Bide horretan, proiektu estrategiko ugari jaio dira bertan bi urteotan, Tolosako etorkizuna marraztuko dutenak, eta argia ikusiko dute 2018an; tartean, Emakumeen Etxearen parte hartze prozesuak, Oria ibaiaren ekintza planak, gazteen I. topaketak edota eraikin soziokulturalen azterketak. Zehatzago, honakoak izan dira horietako batzuk:

- Gizarte zerbitzuak ezagutarazteko gida bat osatu eta argitaratuko du Gizarte Zerbitzuen sailak. 5.000 euro.
- Izaera sozialeko elkarten arteko elkarlana sustatzeko II. Topaketa. 2.000 euro.
- Arreta zerbitzua hobetzeko arreta protokoloa sortuko da.
- Gizarte zerbitzuak landa auzoetara gerturatzeko bisitak antolatuko dira.
- Desgaitasuna duten pertsonentzako kirol eskaintza indartuko da. 9.000 euro.
- Eskola kirola eta kirol elkarten arteko lankidetzak sendotu. 54.000 euro.
- Landa auzoetan mugikortasuna eta irisgarritasuna bermatzeko, Bidaion bidea zabaldu eta aparkaleku berriak sortuko dira. 75.000 euro.
- Hainbat irisgarritasun lan: Iurramendi auzoa, Zuloaga, Ermita eta kanposantu arteko bidean, San Frantzisko amaieran, Kiroldegian...
- Idazle tailerra bultzatuko da.
- Tolosa herri atsegina izaten jarrai dezan bertako zein kanpoko erosleentzat, gune biziak programari jarraipena emango zaio Gudari kalera zabalduz eta hainbat gunetan fluxu kontaketa burutuko da. 15.000 euro.
- Merkataritza, ekoizle-baserritar eta zerbitzu enpresen lehiakortasuna indartzeko hainbat hitzarmen sinatuko dira Berriz, Merkataritza Federazioa, Tolosa&Co edota Tolomendirekin. 84.000 euro.
- Ibaia garbituko da hirugarren urtez jarraian. 5.000 euro.
- Energia azoka antolatuko da hirugarrenez. 1.500 euro.
- Mugikortasun astean hezkuntza kanpainak indartuko dira. 1.500 euro.
- Tolosako ekosistema ezberdinen inguruko azterketa egingo da, ondare naturalak ta ekosistemak eskaintzen dizkiguten zerbitzuak balioesteko. 6.000 euro.
- 21.330 euro bideratuko dira ikastetxeetan etorkinen euskalduntzea bultzatzeko. Lan munduan euskalduntzeko, berriz, 3.000.

- Euskaldunak aktibatzeneko ekimena sustatuko da. 8.000 euro.
- Maskulinitate berriak sustatzeko sentsibilizazio kanpainak gauzatuko dira. 3.000 euro.
- Hirigintza genero irizpidetik aztertzeko prozesu partehartzailea jarriko da abian. 10.500 euro.
- Emakumeen gunearen inguruan hausnartzeko prozesu partehartzailea abiaraziko da. 20.500 euro.
- Emakumeen lanaren garrantzi ekonomikoa eta soziala balioan jartzeko kanpaina jarriko da martxan. 5.000 euro.
- Tolosako gazte elkartu eta elkartugabeen I. Topaketa. 2.200 euro.
- Belaunaldien arteko informazioaren transmisioa Haurren Hiria ekimenean: 24.000 euro.
- Prebentzio mahaitik, erasmus + programari babes. 4.000 euro.
- Gazteei emantzipaziorako erramintak eskainiko zaizkie martxoa hasieran gauzatuko den Tolosako Aste Digitalaren barruan.
- Enpresen Eguna urtarrilean. 3.000 euro.
- Lanbide Heziketa Azokaren II. edizioa. 5.000 euro.

Iaz, 40 proiektu inguru txertatu ziren 2017ko aurrekontuan, 400.000 euroko aurrekontuarekin. Horien betetze maila publikoa da, guztiei eman zaie hasiera eta batez beste, % 70aren bueltan daude exekutatuak. [Www.tolosa.eus/tolosatzen](http://www.tolosa.eus/tolosatzen) atarian egin daiteke jarraipen osoa. Baita dokumentu ezberdinak eskuratu ere.

Hain zuzen, aurrekontuan isla duten ekintza horien jarraipena egitea, betetze mailaren ebaluazioa eta hurrengo urteei begirako ekintzak zehaztea izango da Tolosatzeneko kideen lana.